



Azaro Fundazioa eta BEAZ otsailaren 15,16 eta 17an Holandan izan den RETRACE proiektu europarraren baitako laugarren *field visit* edo tokiko bisitan egon dira. Interreg Europa programaren baitan kokatzen den eta EGEFk finantzaturako proiektu honen helburua Ekonomia Zirkularreko proiektu eta jarduera ekomikoak ezarri eta garatzeko metodologia gisa Diseinu Sistemikoaren erabilera sustatzea da. Horretarako ekintza garrantzitsuenetako bat herrialde ezberdinetan eman diren praktika onen identifikazioa da. Proiektua hasi zenetik (2016ko apirila), RETRACEeko kide eta *stakeholderrak* Italia, Frantzia, Espainia eta Holandara egin dituzten tokiko bisitei esker, 35 praktika on ezagutzeko aukera izan dute.



Azaro Fundazioa izan da bidaiaria hau antolatzeko ardura izan duena eta lan horretan Ekonomia Zirkularrean erreferente diren Holandako bi erakunderen laguntza izan du: [Bluecity010](#) (Ekonomia Zirkularrarekin lotutako proiektuak dituzten Herbeheretako *start-up* ak elkar ezagutu eta harremanak sortzeko Rotterdam-en kokatutako enpresa-gunea) eta [Circular Expo](#) (Ekonomia Zirkularrerantz trantsizioa bizkortzeko balio dezaketen idea, teknologia, negozio-ereduak eta finantza-egitura garatzen diren negozio-gunea). Holandan aurkeztu ziren ekimenak ezberdinak izan ziren, Bluecity010, Rotterzwam, Fruit Leather, Better Future Factory, Circular Valley, Black Bear Carbon, Coop Arc, Amsterdam Smart City, Schiphol Airport eta Sky NRG; fruta hondakinetatik sortutako larrua eta birziklatutako H

2

O-tik lortutako erregai bezalako kasuak aurkeztu ziren.



Holanda (nahiz eta ez den Italia, Frantzia, Errumania eta Esloveniak osatzen duten RETRACE partzuergoko herrialdeetako bat) Ekonomia Zirkularraren *hotspot* edo puntu beroetako bat da

mundu mailan, benetako erreferentia alor honetan. Hori dela eta, bidaia oso baliagarria izan da. Gainera, RETRACEko kide bakoitzak bere *stakeholderrak*

(kasu honetan, Ekonomia Zirkularren interesatutako erakundeak) gonbidatzeko aukera izan du. Azaro Fundazioaren eta BEAZen bitartez bidaia honetan parte hartzeko aukera izan duten erakundeak hauek izan dira: Orkestra -Lehiakortasunerako Euskal Institutua-, Euskadiko Diseinatzaileen Elkarteak EIDE, Circular Hub-Impact Hub Donostia, Saiolan S.A. eta azkenik, Madriletik etorritako Fundación Economía Circular.

Lurralde-politiketan eragina izango duen gomendio politikoen gida bat osatu eta Diseinu Sistemikoaren bitartez Ekonomia Zirkularren printzipioetan oinarritutako jarduerak sortzeko metodo bat definitzea da bidaia hauen bitartez lortu nahi dena.